

## Euskal AEn %3,2 gutxitu ziren jaiotzak 2016an


**30 urte baino gutxiagorekin emakume atzerritarren %40,1 izan da ama; espainiarren %13,1**

2016an, Euskal AEn 18.240 haur jaio ziren, aurreko urtean baino %3,2 gutxiago, Eustaten arabera. Ama espainiarren artean %-5,2; atzerritarren artean %+4,6.

Gipuzkoan 6.015 haur jaio ziren (%-5,4, jaitsierarik handiena); Araban 3.074 (%-2,7); Bizkaian 9.151 (%-1,9).

Jaiotza-tasa, mila biztanleko 8,4. Zifrarik handiena Araban, %9,5; Gipuzkoan, %8,4; Bizkaian, %8.

**1. grafikoa: Bizirik jaioak, amaren bizileku lurralde historikoaren arabera. 1975-2016**



Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

### Jaiotzen %81,1etan amak 30 urte edo gehiago

Talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %36,7; 2015.aren aldean ehuneko puntu bat txikiagoa. Ondoren 35-39 urte bitartekoak (%34,9, pittin bat gutxiago lehengo urtean baino); eta 40 urte eta gehiagokoak (%9,5, ehuneko puntu bat gehiago). 25-29 urte bitartekoak %13,3, lehengoan; 20-24 bitartean %4,4, 3 puntu hamarren gehiago. Ama nerabeak %1,2, lehengoan.

## 1.taula: Bizirik jaioak, amaren bizileku lurralde historikoaren arabera. 2016

|                                        | Euskal AE     | Araba/Álava  | Bizkaia      | Gipuzkoa     |
|----------------------------------------|---------------|--------------|--------------|--------------|
| <b>Guztira</b>                         | <b>18.240</b> | <b>3.074</b> | <b>9.151</b> | <b>6.015</b> |
| <b>Sexua</b>                           |               |              |              |              |
| Gizonezkoak                            | 9.323         | 1.546        | 4.697        | 3.080        |
| Emakumezkoak                           | 8.917         | 1.528        | 4.454        | 2.935        |
| <b>Jaiotza-hurrenkera</b>              |               |              |              |              |
| Lehenengoa                             | 9.321         | 1.447        | 4.880        | 2.994        |
| Bigarrena                              | 6.988         | 1.223        | 3.479        | 2.286        |
| Hirugarrena edo gehiago                | 1.931         | 404          | 792          | 735          |
| <b>Amaren adin betearen arabera</b>    |               |              |              |              |
| <= 19 urte                             | 215           | 45           | 108          | 62           |
| 20 - 24 urte                           | 809           | 164          | 397          | 248          |
| 25 - 29 urte                           | 2.422         | 425          | 1.145        | 852          |
| 30 - 34 urte                           | 6.693         | 1.113        | 3.243        | 2.337        |
| 35 - 39 urte                           | 6.364         | 1.049        | 3.328        | 1.987        |
| >= 40 urte                             | 1.737         | 278          | 930          | 529          |
| <b>Amaren egoera zibilaren arabera</b> |               |              |              |              |
| Ezkondua                               | 10.380        | 1.791        | 5.029        | 3.560        |
| Ezkongabea                             | 7.860         | 1.283        | 4.122        | 2.455        |
| <b>Amaren nazionalitatea</b>           |               |              |              |              |
| Espainiarra                            | 14.338        | 2.188        | 7.368        | 4.782        |
| Atzeritarra                            | 3.902         | 886          | 1.783        | 1.233        |

**Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika**

### **Amen %21,4, atzeritarrak**

Amen %21,4, atzeritarrak; 3.902 haur ekarri zituzten. 2015ean %19,8 ziren ama atzeritarrak. 769 ama, Marokokoak; 324, Errumaniakoak; 237, Boliviakoak; 226, Kolonbiakoak; 216, Nigeriakoak; 159, Aljeriakoak, eta kopuru bera Paraguaikoak; 146, Nikaraguakoak; 129, Ekuadorkoak; 119, Brasilgoak.

Emakume atzeritarrak urte gutxiagoekin amatzen dira, Euskal AEn bizi diren espainiarrak baino. 30 urte baino gutxiagorekin atzeritarren %40,1 izan da ama; espainiarren %13,1

Amen batez besteko adina, 33,4 urte. Espainiarren artean 34,1 urte; atzeritarren artean, 30,8.

2016ko ama lehen erdituen batez besteko adina, 32,5 urte.

### **10 urtetan ezkontzatik kanpoko jaiotzak ia bikoiztu egin dira**

2016an ezkontzatik kanpoko jaiotzak, 7.860, guztien %43,1; 2015ean baino %0,3 gehiago. Bizkaiak Euskal AEk baino ehuneko handiagoa izan zuen, %45; Gipuzkoak

%41,7; Arabak %40,8. 2006koa (%25) eta oraingoa alderatuz gero, ezkontzaz kanpo jaiotakoak ia bikoiztu egin dira.

2016ko 9.321 lehen jaiotzak guztien %51,1 izan ziren; bigarrenak %38,3; hirugarren eta ondorengoak %10,6.

2016an bizirik jaioen artean, 100 neskatoko 105 mutiko. Mutikoen batez besteko pisua, 3.308 gramo; neskatoena, 3.189.

Erditzeak 17.799 izan ziren: horietatik 17.288, bakunak; 507, bikoitzak; eta 4, hirukoitzak. 1.062 erditze (%6), garaiz aurrekoak.

---

**Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*  
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62